


## Lana / La obra

Koldo Izagirrek gure hizkuntzan artseniko aztarnak aurkitu zituen bezala, Pako Aristi euskararen inguruko diskurtsoa kutsatzen duten gezurrak detektatzen saiatu da liburu honetan: euskara politizatua dagoela, ez dela modernoa, subentzionatua dagoela, erakargarritasuna falta zaiola…

Horretarako mila urteko historia marrazten du, Nafarroako Erresumaren garaitik hasi eta gaurdaino euskarak jasan duen endekapen planifikatua deskribatuz.

Botere hegemonikoak, berez bereizia zen lurralde bat menderatu duenean, gezurrak asmatzen baititu bere aurpegia ederresteko, eta menderatua konplexuz betetzeko. Gero gezurrok inposatzen ditu, eta guk irentsi egiten ditugu, azkenik, gezurren gainean eraikitako ekimenak antolatzeko.

Liburu hau zaplazteko bat da diskurtso desideologizatuen aurpegian; kolpe bat gogoeta alienatuen mahai gainean. Astindua, eta ondoren, katarsia. Hori guztia estilo bizian idatzia, istorio, pasadizo, aipu eta gogoeta zorrotzak erabiliz.

Liburu pertsonala, guztiz, baina herri baten hatsa jaso nahi duena. Aspertu behintzat, irakurle, ez zara aspertuko.

## Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Euskararen isobarak**
Hamasei gezur handi eta koda bat
Egilea / Autor: **Pako Aristi**
Saila / Colección: Saiopaperak, 14
ISBN / EAN: 978-84-9746-929-6
Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluido)
Orri kopurua / Nº páginas: 196
Formatua / Formato: 14 x 20,5 cm

## Egilea / El autor

**Pako Aristi** (Urrestilla, 1963). Kazetaritzan lizentziatua da. Rikardo Arregi saria irabazi du bi urtetan jarraian (1992 eta 1993an). Saiakera landu du (*Euskal Kantagintza Berria*), nobelagintza (*Kcappo*, *Irene*, *Krisalida*), ipuingintza (*Auto-stopeko ipuinak*) eta haur literatura. 1997an *Castletown* poema liburua argitaratu zuen, eta 1998an *Oherako hitzak*.

Beste nobela batzuk: *Urregilearen orduak* (Erein, 1998), *Libreta horiko poemak* (2003), *Gauza txikien liburua* (Beterriko liburua 2005), *Note book* (Erein, 2005), *Plazer bat izan duk, Benito!* (2012). Hamar urtetan zehar idatzitako artikulo bilduma, *Udan lan egiten zuen gizona* (Erein, 2007) liburuan gauzatu zuen. Bere azkeneko saiakera liburua: *Independentziaren paperak* (2012), *Los papeles de la independencia* (2013).

9 788497 469296